

*Bernard Shaw-ek esana da:*

Etorkizuna ezagutu gabe, ezin inork esan igaroa baino hobeia izango ez denik. Hauxe da itzaropena.

*Bere baitan duen bizialdiaren jarioak, pentsaraztera eztenkatzen du gizona. Lehena joana, oraina eskas, geroa asmo: bakoitzak du bere gozoa eta larria, bitzta arian-arian doala.*

*Honera artean kultura eta fedea ikusi ditugu, gizartegintzari edo ekiten. Baina gizarte hau ez da orainaldian gelditzen. Ez du nahi. Etorkizuna ere bereganatu nahi luke. Giro berriago batez jabetu behar du gizonak, asekaitza bait du barnea.*

*Giza-izaldia historiak betetzen du, eta historia, berriz, izanaren egintzak eta izankizunaren*

*itxaropenak. Gizonak itxaropen historikoak ditu, "hemendikaldeko" esperantza eta itxarokizunak ere bai.*

*Geroa —diotenez— historian burutzen da. Edota historiaren "handikaldean". Metahistoria hontaz ari da fedea hitzegiten. Fededunetatik hainitzek, hala ere, ez du bere fededuntasunean histori barneko itxaropenkizunik galdu nahi. Fedeak ere —diotenez— historia maite du, eta historian nahi du lanegin. Ekintza beharko luke, beraz, fededunaren itxaropen jator batek.*

*Hortik datoz galderak: zer egin behar du fedeak historian?, zer eta nola?, zein da fedearen azken eskakizun historikoa? Non da kristau itxaropenaren eta giza-itxaropen historikoaren lotura? Iraultza, fedearen eskakizun?*

*"Handikalde" urrun hura orainen premia-tasun gorrian landa ote daiteke? Eta nola?*

*José Maria Diez-Alegriaren lan bat aukeratu dugu, galdera hauk argi ditzan. Idazleak —klinika batetik— gogoz eman digu itzulpenerako bai-mena. Gaztelaniaz, Sígueme argitaldaria eman da.*

J. I.